



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko azaroaren 11

131. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-24/PRO-00016. Foru Legea, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsi du (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/MOC-00116. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes, konfiantza eta konpromisoa adierazten baitizkio Nafarroako Justiziarri. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).

—11-24/MOC-00125. Erabakia, zeinaren bidez Gobernu zentrala premiatzen baita Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorra bete dezan eta berma dezan hizkuntza koofizialetako ekoizpenari dagokionez legean ezartzen den ehunekoa betetzen dutela ikus-entzunezkoen plataforma digitalek. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).

—11-24/MOC-00131. Erabakia, zeinaren bidez Europar Batasuneko erakundeak –Parlamentua, Kontseilua eta Batzordea– premiatzen baitira Italia behartu dezaten Albanian sortu duen barneratze-zentroa ixtera. Osoko Bilkurak onetsi du (5. or.).

—11-24/MOC-00132. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Laneko eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak egindako proposamenarekin, asteko lanaldia 37,5 ordukoa izan dadin. Osoko Bilkurak onetsi du (5. or.).

—11-24/MOC-00136. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita onar dezan Itoizko urtegia eta Nafarroako ubidea eraikitzea egokia eta beharrezkoa izan zela eta ohartarazten baitio lehentasunezkoa dela Nafarroako ubidearen bigarren fasearen lizitaziorako izapideak arintzea, toki entitateen, ureztatzaile elkarten eta ukitutako eragileen eskutik. Osoko Bilkurak onetsi du (6. or.).

—11-24/MOC-00138. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita berehala heda dezan Europar Batasuneko Zerbitzu Digitalei buruzko Erregelamendua. Osoko Bilkurak onetsi du (7. or.).

—11-24/MOC-00140. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kulturako lanbideei buruzko foru-lege proiektu bat aurkezteko egutegia ezar dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (8. or.).

—11-24/MOC-00135. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak exijitzen baitu Pedro Sánchez buru duen gobernu osoak dimisioa aurkez dezan eta hauteskunde orokorren deialdia egin dadin. Osoko Bilkurak ezetsi du (8. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-24/PRO-00016. Foru Legea, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko urriaren 31n egindako bilkuran, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena

HITZAURREA

Foru lege honen bidez erdietsi nahi den helburua da gure araudia eguneratzea etxebizitzarako eskubidearen aldeko maiatzaren 24ko 12/2023 Legeak xedatzen duenera, "tentsiopeko merkatuaren zonalde" deklarazioari dagokionez, halatan ahalik denbora laburrenean garatzearen etxebizitza-politikako tresna hori, Nafarroan etxebizitza bat eskuratzeko dagoen zailtasun gero eta handiagoa dela-eta; batez ere, alokairuzko etxebizitza denaz bezainbatean.

Horrela lortu nahi da etxebizitzak erosteko nahiz alokatzeko eragiketei emandako babesa hobetzea, prozesuari segurtasuna eta bermeak emateko beharrezkoak diren gutxieneko informazio batzuk xedatuz, informazio eguneratuaren eta datu ofizialen bitartez bai errentatzaile eta errentariak babestuz, bai eta merkatu horretan esku hartzen duten eragileen multzoa ere.

Horren guztiaren bitartez oreka bat sostengatu nahi da, tentsiopeko etxebizitza-merkatukotzat definituriko zonetako etxebizitza-eskaintzaren eta ohiko goitza ezinbestean zona horretan edukitzeko pre-

miaren artean, egoera hori botere publikoetatik alderantzizatzeko beharrezkoak diren tresnak, plangintza eta neurriak sustatuz.

Horretarako proposatzen da maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzea, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzkoa.

Artikulu bakarra. Aldatzea Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea.

97. artikulua aldatzen da, halako moldez non testu hau izanen baitu:

"97. artikulua. "Tentsiopeko Etxebizitza Merkatuaren Zonalde" deklaratzeara.

1. Nafarroako Gobernuan etxebizitza-alorreko eskumenak dituen departamentuak zilegi izanen du eremu jakin batzuk "Tentsiopeko Etxebizitza Merkatuaren Zonalde" deklaratzeara, egoki diren urrats publikoak bideratze aldera, herritarrei etxebizitzarako duten eskubidearen egikaritze efektiboa erraztuko dietenak, abiapuntutzat harturik prezio ordainerrazeko etxebizitzaren eskuragaitasunerako arriskua, eta kontuan izanik suertatzen diren lurralde-premia desberdinak.

2. "Tentsiopeko Etxebizitza Merkatuaren Zonalde" deklaratzeko, honako arau hauei jarraituko zaie:

a) Deklarazioaren aurretik, prestatze-prozedura bat beharko da, bideratuta egonen dena deklarazio horren xede den eremuko etxebizitza-merkatuaren egoerari buruzko informazioa lortzera, zenbait adierazle barne harturik, hala nola mota desberdinetako etxebizitzaren alokairu- eta salmenta-prezioenak eta horiek denboran zehar izandako bilakaerarenak, eta etxebizitzetan bizi diren familien errenta erabilgarriaren mailarenak eta horrek denboran zehar izandako bilakaerarenak, halatan eta etxebizitza-prezioekin batera neurtu ahal izatearren familiek etxebizitza duin eta egokia esku-

ratzeko egin beharra daukaten ahalegin ekonomikoaren bilakaera.

b) Gero, informazio-izapide bat eginen da, zeinaren bidez jendaurrean paratuko baita deklarazioa oinarritzeko asmoz erabili nahi den informazio guztia, barne direla populazioaren eta familien espazio-banaketari, egiturari eta dinamikari buruzko azterlanak, bai eta eskaintzaren eta etxebizitza-prezio eta -moten araberako zonifikazioa ere, edo beste edozein azterlan, modua emanen duena gizarte- eta lurralde-koehesioari kalte egiten dioten desorekak eta bereizketa sozioespazialeko prozesuak agerian jarri edo prebenitzeko. Informazio publikoaren izapidea gauzatuko da Nafarroako Gobernuaren Gobernu Irekiaren Atarian informazioa bi hilabetez jendaurreratuz, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatuta. Epe horretan, herritarrek alegazioak aurkeztu ahalko dituzte.

c) Lurralde-eremu baten "Tentsiopeko Etxebizitza Merkatuaren Zonalde" deklarazioa etxebizitza-alarrean eskudun den Nafarroako Gobernu departamentuaren titularraren foru agindu bitartez eginen da, zeina arrazoituta egon beharko baita aipagai harturik eremu horretako etxebizitza-merkatuak bere edozein modalitatetan ohiko etxebizitzarako eskaria egokiro eta betiere zentzuzko prezioan asetzeko dituen akats edo eskasetasunak, gogoan izanik bai nolako egoera sozioekonomikoan dagoen bertako egoiliar den biztanleria, bai eta zein diren dinamika demografikoak ere, eremu bakoitzaren lurralde-bereizitasunak aintzat hartuta. Indarrean sartzeko, beharrezkoa izanen du "Nafarroako Aldizkari Ofizial"ean argitaratua izatea. Jakinarazi eginen zaio etxebizitza-alarrean eskudun den ministerioari.

3. "Tentsiopeko Etxebizitza Merkatuaren Zonalde" deklaraziorako beharrezkoa izanen da oroitidazki batek hori datu objektiboen bitartez justifikatzea, oinarritzat harturik arrisku berezia dagoela, egoiliar diren biztanleentzat eta familia berrien sorkuntzaren dinamikak ere kontuan harturik, eskuratzeko moduko baldintzetan dauden etxebizitzaren hornidura nahikorik ez egotekoa, honako inguruabar hauetako bat gertatzeagatik:

a) Lurralde-eremu horretan hipotekaren edo alokairuaren kostuak pertsonaren edo bizikidetzaren aurrekontuan duen batez besteko zama, gehi oinarritzeko hornidurak eta gastuak, handiagoa izatea familien batez besteko errentaren ehuneko hogeita hamar baino.

b) Lurralde-eremu horretan etxebizitzaren erosketa- edo alokairu-prezioak aurreko bost urteetan

izandako hazkunde metatuaren ehuneko gutxienez ere hiru portzentaje-puntu gehiagokoa izatea Nafarroako Foru Komunitateko Kontsumoko Prezioen Indizearen hazkunde metatuaren ehuneko baino.

4. Etxebizitzaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernu departamentuak, "Tentsiopeko Etxebizitza Merkatuaren Zonalde" deklarazioarekin batera edo horren ondoren, berariazko plan bat onetsiko du, deklarazioan agerian geraturiko desorekak zuzentzeko beharrezkotzat jotzen diren neurriak proposatuko dituena, bai eta betetze-egutegi bat ere. Departamentuak zilegi izanen du kasuko eremuan dauden udalekin elkarlan-formulak adostea, bermatuko dutenak udal horiek parte-hartzea izanen dutela, administrazio publiko bakoitzak bere eskumenen esparruan jokatzat betiere, apartatu honek aipatzen duen berariazko planeko proposamenaren prestaketan, garapenean eta finantzaketan.

Neurri horiek etxebizitza-alarreko eskumenak dituen ministerioarekin koordinatu ahalko dira, Etxebizitzarako Eskubidearen aldeko maiatzaren 24ko 12/2023 Legeak ezartzen dituen nondik norakoaren arabera.

5. Lurralde-eremu batentzat "Tentsiopeko Etxebizitza Merkatuaren Zonalde" deklarazioa onesten duen foru aginduak ezarriko du ezen lurralde-eremu batek "Tentsiopeko Merkatuaren Zonalde" gisa duen deklarazioaren indarraldia hiru urtekoa izanen dela.

Arauk ezartzen duen indarraldia iraganik, eta hasierako deklarazioa oinarritu zuten inguruabarrak gertatzen badira, zilegi izanen da aipatu indarraldia urtebeteko epeka luzatzea.

6. "Tentsiopeko Etxebizitza Merkatuaren Zonalde" gisa deklaratu ez dauden udalek zilegi izanen dute etxebizitza alorrean eskudun den departamentuari eskatzea, behar bezala justifikatuz eta arrazoituz, hasiera eman dakion artikulu honen bigarren apartatuak jasotako aurretiazko informaziorako prestatze-prozesuari, egiaztatze aldera ea betetzen ote diren "Tentsiopeko Etxebizitza Merkatuaren Zonalde"tzat hartuak izateari begira arau honek ezartzen dituen betekizunak. Eskaera hori ezin izanen da berriz egin hiru urte baino gutxiagoko denbora-epetan".

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00116. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes, konfiantza eta konpromisoa adierazten baitizkio Nafarroako Justiziari

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko urriaren 31n onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes, konfiantza eta konpromisoa adierazten baitizkio Nafarroako Justiziari. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bere babes, konfiantza eta konpromisoa adierazten dizkio Nafarroako Justiziari.
2. Botere-banaketaren printzipioarekiko errespetua adierazten du”.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00125. Erabakia, zeinaren bidez Gobernu zentrala premiatzen baita Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorra bete dezan eta berma dezan hizkuntza koofizialetako ekoizpenari dagokionez legean ezartzen den ehunekoa betetzen dutela ikus-entzunezkoen plataforma digitalek

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko urriaren 31n onetsitako erabakia, zeinaren bidez Gobernu zentrala premiatzen baita Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorra bete dezan eta berma dezan hizkuntza koofizialetako ekoizpenari dagokionez legean ezartzen den ehunekoa betetzen dutela ikus-entzunezkoen plataforma digitalek. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentrala premiatzen du Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorra bete dezan eta berma dezan hizkuntza koofizialetako ekoizpenari dagokionez legean ezartzen den ehunekoa betetzen dutela ikus-entzunezkoen plataforma digitalek”.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00131. Erabakia, zeinaren bidez Europar Batasuneko erakundeak –Parlamentua, Kontseilua eta Batzordea– premiatzen baitira Italia behartu dezaten Albanian sortu duen barneratze-zentroa ixtera

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko urriaren 31n onetsitako erabakia, zeinaren bidez Europar Batasuneko erakundeak –Parlamentua, Kontseilua eta Batzordea– premiatzen baitira Italia behartu dezaten Albanian sortu duen barneratze-zentroa ixtera. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Europar Batasuneko erakundeak –Parlamentua, Kontseilua eta Batzordea– premiatzen ditu:

1. Italia behartu dezaten Albanian sortu duen barneratze-zentroa ixtera.

2. Legeak eta arauak eman ditzan migratzaile-entzako barneratze-eremuak sortzea eragozteko.

3. Gizakiarenganako errespetua eta elkartasuna eta hori bezalako balioak lehenetsiko dituen migrazio-politika ezar dezan”.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00132. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Laneko eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak egindako proposamenarekin, asteko lanaldia 37,5 ordukoa izan dadin

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko urriaren 31n onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Laneko eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak egindako proposamenarekin, asteko lanaldia 37,5 ordukoa izan dadin. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bat egiten du Laneko eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak egindako proposamenarekin, asteko lanaldia 37,5 ordukoa izan dadin.

2. Gure herriko eragile sozial guztiak premia-tzen ditu konprometi daitezen langile guztien lanbaldintzak eta enplegua hobetzea bilatzen duen produkzio-eredu batekin eta, hortaz, lehenbailehen lor dezaten hiruko akordio bat asteko lanaldia 37,5 ordura arte murrizteko.

3. Nafarroako Gobernuak premia-tzen du enpre-sendako laguntzak bultzatzen, lanaldi murrizketan eta produktibitatea hobetzean aurrerapauso sendoagoak emate aldera Estatuko esparru akordioaren bidez ezarritakoak baino.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-24/MOC-00136. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita onar dezan Itoizko urtegia eta Nafarroako ubidea eraikitzea
egokia eta beharrezkoa izan zela eta ohartarazten baitio lehentasunezkoa
dela Nafarroako ubidearen bigarren fasearen lizitaziorako izapideak
arintzea, toki entitateen, ureztatzaile elkarten eta ukitutako eragileen
eskutik**

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko urriaren 31n onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita onar dezan Itoizko urtegia eta Nafarroako ubidea eraikitzea egokia eta beharrezkoa izan zela eta ohartarazten baitio lehentasunezkoa dela Nafarroako ubidearen bigarren fasearen lizitaziorako izapideak arintzea, toki entitateen, ureztatzaile elkarten eta ukitutako eragileen eskutik. Hona testua:

“1. Itoizko urtegiaren obrak egitea bultzatu zuten gobernuen, alderdi politikoen eta erakunde sindikal eta sozialen lana aitortzen eta eskertzen dugu, azpiegitura handi horren aurka azaldu eta urtegia eraikitzea ahal izan zuten guztia eragotzi zutenen aitzinean.

2. Argi dago Itoizko urtegia eta Nafarroako Ubidea eraiki beharra zegoela eta horiek eraikitzean asmatu genuela; izan ere, gure foru-erkidegoa egituratzen dute ondasun urri eta ezinbesteko bat-ura, alegia- iparraldetik Erriberaraino eramatean, Erdialdean eta Estellerriaren parte handi batean barrena.

3. Nafarroako Ubidearen 2. fasearen lizitaziorako izapideak al bait gehien azkartzera premia-tzen dugu.

4. Nafarroako Gobernua premia-tzen dugu behar adina diru esleitzen dezan Nafarroako 2025erako Aurrekontu Orokorretan, obra hori lehenbailehen esleitzearren.

5. Udalak, ureztatzaileen erkidegoak, nekazaritza-ko organizazioak eta abar bultzatzen ditugu modu aktiboan parte har dezaten eta euren esku dagoena azkartu dezaten ura lehenbailehen hel-tzeko Erriberara.

6. Nafarroaren eta Estatuaren arteko akordioa-ren 4. aldaketa al bait lasterren egin dadila, aldake-ta hori behar-beharrezkoa baita obrak lizitatzeko.

7. Nafarroako Gobernua premia-tzen dugu egin beharreko lurzati-berrantolamenduen proiektuak has ditzan, hodi nagusien obrak lizitatzen diren une beretik.

8. Nafarroako Gobernua premia-tzen dugu uki-tutako toki-entitateen, ureztatzaileen elkarten eta bestelako eragileen planteamenduak eta beharri-zanak aditu eta aintzat har ditzan, Nafarroako Ubi-deak berekin dakarren aberastasunaren banaketa ekitatiboa egiteko”.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00138. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia- tzen baita berehala heda dezan Europar Batasuneko Zerbitzu Digitalei buruzko Erregelamendua

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko urriaren 31n onetsitako erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiaitzen baita berehala heda dezan Europar Batasuneko Zerbitzu Digitalei buruzko Erregelamendua. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiaitzen du:

- Berehala ezar dezan Europar Batasunaren Zerbitzu Digitalen Erregelamendua (DSA).

- Plataformek gazteen arreta erakartzeko erabiltzen dituzten teknikak detekta eta eragotz ditzan, haien zaurgarritasunaz baliatuta haien datuak monetizatzeke erabiltzen dituztenak alegia, Zerbitzu Digitalen Erregelamendua betez.

- Administrazio publikoen jardunbide egokiak susta ditzan: jakinarazpenak desaktibatzea, mugikorraren blokeo automatikoa, gomendio kronologikoen sistemak edo pantaila grisen eskalan paratzea kontsumo-denbora murrizteko.

- Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren estatutuak alda ditzan, Espainian zerbitzu digitalak koordinatzeko organismoa den aldetik, kontrol eta ikuskapen arloko eskumenak eduki ditzan,

Zerbitzu Digitalen Erregelamenduak (DSA) exijitzen duen moduan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiaitzen du:

- Familiendako formakuntza eta alfabetatze digitaleko jarduketak taxutu ditzan eta, ondoren, ezarri eta ebaluatu, neska-mutikoen, nerabeen eta gazteen parte hartzearekin, horiek ere inplikata baitaude helduen formakuntzan.

- Helduendako eta familiendako formakuntza eta alfabetatze digitaleko programak abiaraz ditzan, neska-mutikoen, nerabeek eta gazteek sare sozialen erabileraren kudeaketaren onurei eta arriskuei buruzko gaitasunak handitzearen.

- Mugikorren erabilera arduratsua eta gainbegiratu bultza dezan, guraso-kontrolleko tresnak indartuta, adingabeen babesa bermatzeko eta eduki desegokietarako sarbidea mugatzeko.

- Hezkuntza digitala berritzeko eta eraldatzeko baliabide zentroa sortzeari behin betiko bultzada ematea; hezkuntza-komunitate osoak hezkuntza-berrikuntzaren alorrean dituen beharrak bultzatu eta horiei erantzuteko egitura autonomoa da zentroa.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00140. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita kulturako lanbideei buruzko foru-lege proiektu bat aurkezteko egutegia ezar dezan

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da argitara dadila Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko urriaren 31n onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita legegintzaldi honetan kulturako lanbideei buruzko foru-lege proiektu bat aurkezteko egutegia ezar dezan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du legegintzaldi honetan kulturako

lanbideei buruzko foru-lege proiektu bat aurkezteko egutegia ezar dezan. Horretarako, lehenago, mozio hau onetsi eta 2026. urtearen amaiera bitartean, Artistaren Estatutua Nafarroako errealitatera egokituko da, eta kultura-sektoreko profesionalen, sindikatuen, toki-erakundeen eta herritarren arteko parte-hartze prozesu bat egingen da”.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00135. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak exiji- tzen baitu Pedro Sánchez buru duen gobernu osoak dimisioa aurkez- dezan eta hauteskunde orokorren deialdia egin dadin

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko urriaren 31n egindako bilkuran, ezetsi egin du Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak exijitzen baitu Pedro Sánchez buru duen gobernu osoak dimisioa aurkez dezan

eta hauteskunde orokorren deialdia egin dadin. Mozioa 2024ko urriaren 29ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias